

PRENTSA-OHARRA

Amiantoaren geolokalizazioak berritasuna dakar **AMIANTOARI ETA UDAL INBENTARIOEI BURUZKO IKASTAROEN EDIZIO** **BERRIA**

Barakaldo, 2021eko irailaren 16a.- Gaur hasiko da amiantoari eta udal-inbentarioei buruzko ikastaroaren edizio berria, EUDELeK, IVAPek eta aldundiek antolatua eta Osalanek garatua, GeoEuskadirekin (Eusko Jaurlaritzaren Kartografia Zerbitzua) batera. Ikastaroak helburu du **amiantoaren udal-inbentarioak egiteko** eta amiantoa kentzeko administrazio-izapideei buruzko jarraibide orokorrak ematea.

Edizio honetako berrikuntza GeoEuskadiren lankidetzak da, udalerri bakoitzean amiantoaren (fibrozementuaren) balizko kokapenak "margotzeko" aukera ematen baitu.

Ikastaroan, langileak gaituko dituen prestakuntza emango da, udalek beren udalerrian amiantoa (fibrozementua) non dagoen identifikatuta izan dezaten, haien ezaugarriak defini ditzaten, amianto-arriskua duten jarduerak identifika ditzaten eta **GeoEuskadi amiantoaren inbentarioa aztertzeko eta bistaratzeko tresna gisa erabil dezaten.**

Horrek guztiak abantaila hirukoitza du:

- Eraikin propioen titular gisa: beren langileekin edo kontratazioen bidez mantentzea errazten du (jardueren koordinazioa);
- Administrazio-izapideak kudeatzen dituen administrazio gisa: obra-lizentzien izapideak arindu ditzake;
- Era berean, baliagarria da **prebentzioko zerbitzuek eta suteak itzaltzeko zerbitzuek datu garrantzitsuak izan ditzaten** beren eskumen-eremuko jarduerari erantzuteko orduan.

Ikastaroak hiru jardunaldi izango ditu, eta lurralde historiko bakoitzean:

- Donostia: irailak 16, 23 eta 29;
- Bilbo: irailak 16, 22 eta 30;
- Vitoria-Gasteiz: irailak 16 eta 24 eta urriak 1.